


## 12. oinezko ibilbidea Agaramunda

ALTUERA MIN.:	178 m.
ALTUERA MAX.:	519 m.
DESNIBELA:	▼ 378 m. ▲ 370 m.
DISTANTZIA:	8,12 km.
DENBORA:	2 ordu
ZAILTASUNA:	erraza

## 12. AGARAMUNDA



## 12. AGARAMUNDA

➤ SAN GREGORIOKO PLAZA ~ GAZTINERREKO UR-BILTEGIA ~ URKULLAGA GAINA ~ ERGOIENA AUZOA ~ SAN GREGORIOKO PLAZA



Aparkalekua	Hesia/Langa	Baserria	Biltegi/Uharka	Amaiera
Hasiera puntua	Bidegurutzea	Zubia	Mendi-bidea	

## TOPOGIDA

**P. Aparkalekua.** San Gregorioko plazan, elkargunearen aurrean utziko dugu autoa.

**1. Hasiera-puntua.** Ibilbidea ere San Gregorioko plazan bertan hasten da. Errepidea gurutzatu eta iparraldera ekingo dugu elizapera.

**2. PR.** Errepidea gurutzatu eta eskuinera gora egiten duen bidea hartuko dugu aldapa pikoan. Atzean geldituko dira San Gregorio Magnoren eliza eta Ion Iturrarteren ingurune mitopoetikoa, ikusi nahi dituenarentzat. Eskuinera eta gora jarraituko dugu PR arrastoei jarraika.

**3. Egur-hesia.** Ezkerrera egurrezko pasoa igaro eta bide honi ekingo diogu arrasto txuri horiei segika.

**4. Gaztiñerre.** Depositua parean eskuinera eginez basoan barrena arrasto zuri-gorriak jarraituko ditugu. Hemendik aurrera GR 20aren seinaleztapena jarraituz egingo dugu bidea, bidean hainbat hesi igaroz, Urkullagako gainera heldu arte.

**5. Mendiurkullu baserria.** Baserri honetan hainbat esaunda bildu zituen Joxemiel Barandiaranek. Etxe berriaren atzean gelditzen da Agaramunda mendia, bere leizearekin. Pista zementatuaren eta baratzaren artean doan pista hartuko dugu, beti ere GR 20a jarraituz.

**6. Urkullaga.** Urkullaga baserria atzean utzita heldu gara gain honetako bidegurutzera. Hemen errepidera irten eta iturri ondotik eskuinera gora egiten duen pista zementatua jarraituko dugu. Bide honetatik, Iberondoaundi baserria eskuinean igaro eta Frantziskoenea baserriraino helduko gara.

**7. Frantziskoenea baserria.** Hemen amaitzen da pista zementatua, eta ataritik igaro ondoren bidean behera egingo dugu langak igaroz.

**8. Langa ez.** Langa bat parean dugula ezkerrean behera doan bidezidorra jarraituko dugu bide traketsen.

**9. Hesia.** Hesi hau igaro eta aurrera egingo dugu hurritzen itzalean. Tartean beste hesiren bat ere izango da.

**10. Iberondotxulo baserria.** Hau eskuinean dugula errepidea hartu behera. Juanenea baserria ere igaroko dugu ezkerrean utziz, eta Atxurrene parera, errepide nagusira helduko gara.

**11. Errepidea ez.** Errepidera atera gabe berehala eskuinera gora egiten duen bidea hartu. Iberondobarrena baserrira heldu aurretik Ataungo mugarri zaharrenetakoa igaroko dugu: 1759koa da, bertan diosenaren arabera.

**12. Iberondobarrena baserria.** Hau ezker aldean utziz gainetik doan bidea jarraituko dugu, pabilioi handi bat ere ezker aldean pasako dugularik gainetik. Honela Andralezeta etxera aterako gara, eta hemen pista zementatuak errepideraino jaitsiko gaitu.

**13. Errepidea.** Errepidea gurutzatu eta Ergoienara hurbilduko gara eskuinera eginez.

**14. Arbeldiko zubia.** Ergoienako plaza ondoan dagoen Arbeldiko zubia igaro eta otso arrastoak jarraituz eskuinera etxe artera sartuz ekingo diogu herri-bideari. Kutsu mitologiko handiko zubia da hau, Agaramundako leizean galdutako neskaren behatza hemen agertu baitzen.

**15. Ur biltegia.** Hemendik herri-bidea jarraituta Olasagasti eta Urbide etxeak igarota zubira aterako gara.

**16. Lauztierrekako zubia.** Hau igaro eta ezkerrera eginez plazara hurbilduko gara.

**=1. Amaiera.** San Gregorioko plazan gara ibilbideari amaiera emanez.

## GUNE INTERESGARRIAK



SAN GREGORIOKO PLAZA

Oteizaren Centauroa, jolastokia, Zelai pilotalekua eta iturria daude bertan, gertu dituelarik San Gregorio Magnoren eliza eta Ion Iturrarteren ingurune mitopoetikoa, bai eta Joxemiel Barandiaran Mitologia museoa ere.



URKULLAGA

Bidegurutze ezagun honetan elkartzen dira Arrondotik eta Aiatik datorren errepidea, eta Lareoko urtegira doan pista. Puntu honetatik hainbat mendi ibilbide has daitezke, GR-20aren arrastoak bertatik igarotzen direlarik. Bada iturri bat ere puntu honetan.



UR BILTEGIA

Atsedean hartzeko mahaiak dituen erreka ingurua. Tartaloren eraztun magikoak hemen nonbait amaitu zuen "Hemen nago" -ka. Hemendik hartzen da errotarako ura errekatik.